

**PROFESIONALENTZAKO TOPAKETA TEKNIKOA: “BURU GAIXOTASUN
BAT DUTEN NERABEEN ETA BERAIEN FAMILIEN ERREALITATEA
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN”**

ONDORIOAK



2017ko Azaroaren 24an



AURKIBIDEA

Esker-emateak	2
Sarrera	3
Giza Arloko emaitzak	4
Osasun arloko emaitzak	6
Hezkuntza arloko emaitzak	8
Giza-osasun arloko emaitzak	10
Giza-hezkuntza arloko emaitzak	11
Beste arloetako emaitzak	13
Arlo guztietatik jasotako ekarpenak	14
Dauden baliabideak	15
Ondorioak	17

ESKER-EMATEAK

ASAFES-etik topaketa honetan parte hartu duten profesional guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu:

Carmen Maganto Mateori, urte askotako eskarmentuz bermatuta, buru gaixotasuna duten nerabeen errealitateari buruzko ekarpenak egiteagatik.

Elena Ayarza Elorriagari, ARARTEKO-ko ordezkaria, gizarteak duen ikuspegia azaltzeagatik.

Belen Ceberio Cuñado, Blanca Corral Muro, Ana González-Pinto Arrillaga, Sabela Muiño Montero, Ramón Muñoz Cano eta Jesús María Ruiz Aguado profesionalei, beraien eguneroko lana eta ikuspegi profesionala elkar banatzeagatik.

Etorri ziren guztiei erakutsitako arretagaitik.

Bukatzeko, ASAFES-en lan egiten duten pertsona guztiei eta BARNETIK-eko kideei, bere laguntza eskaintzeagatik. Haiei esker topaketa hau arrakastatsua bilakatu zelako.

Sarrera

2017ko azaroaren 24an, ASAFES-ek, buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Arabako elkarteak, profesionalentzako topaketa tekniko bat antolatu zuen. Buru gaixotasun bat duten nerabe eta beraien senideekin lan egiten duten agente guztien arteko elkarlana bultzatzea eta lan egiteko modu bateratua bilatzeko asmoz.

Topaketa Europa Biltzar Jauregian ospatu zen. 125 lagun bertaratu ziren, Arabako giza, osasun eta hezkuntza arloko profesionalak, hain zuzen ere.

Agiri honetan mahai inguruan jasotako ondorioak biltzen dira, baita topaketan parte hartu zuten profesionalak galdeketa emandako erantzunen laburpena ere.

GIZA ARLOA

Nerabeen beharrak

Arlo honetan lan egiten duten pertsonak, esparru guztietatik arreta pertsonal eta integrala ematea beharrezkoa dela uste dute. Baliabide espezializatuak sortzea eta daudenak indartzea da bigarren lekuan agertzen den beharra (adibidez, eguneko zentro eta ospitaleak, giza-hezkuntza eta giza-komunitate arloko baliabideak, aisia eta okupazio baliabideak, emantzipazio pisuak...).

Profesionalentzako formazioa eta estigmaren aurkako ekintzak egitea lehenetsuzkoa da. Prebentzioa eta arreta goiztiarra beharrezkoak ikusten dira. Buru osasun sarean emandako arreta maizago izatea eskatzen da, baita diagnostiko goiztiar bat egitea ere.

Giza arloko profesionalak atentzio integrala beharrezkoa dela uste dute: nerabeen oinarrizko beharrak asetzea arlo guztietan (hezkuntzan, arlo emozionalean, giza arloan).

Bukatzeko, premia hauek ikusten dituzte: gaixotasuna ikusaraztea, hezkuntza sistema adingabekoaren beharrei egokitzea, eskolaz kanpoko ekintza espezifikoak egitea, landa gunean bizi diren adingabekoei atentzioa ematea, laguntza psikologikoa, gaitasun anitzak dituzten nerabeei arreta ematea, dauden baliabideentzako edo baliabide berriak sortzeko inbertsio ekonomikoa handitzea.

Familien beharrak

Arlo honetako profesionalak hurrengo beharrak azpimarratzen dituzte:

Informazioa, aholkularitza, giza laguntza eta formazioa (jarraibideak, buru gaixotasunari buruzko informazioa, krisi egoeretarako arretari buruzko informazioa eta baliabideei buruzko informazioa).

Hurrengo beharrak antzematen dituzte: familientzako baliabide espezifikoak sortzea, laguntza taldeak, kontziliazioa bultzatzeko laguntza ekonomikoak,

adingabekoen anai-arrebei arreta ematea, eta erreferentziazko profesional bat izatea.

Profesionalek dituzten beharrak

Giza arloko profesionalek buru osasunari buruzko prestakuntza eta detekzio goiztiarrerako tresnak beharrezkoak ikusten dituzte. Profesional guztien arteko koordinazioa eta ikerketa bultzatzeko beharra azpimarratzen dute (giza aldaketak, agertzen diren behar berriak, eta esku-hartzearen egokitasunari buruzko ikerketak).

Trabak eta indarguneak

Giza arloko profesionalen arabera, beste arloko profesionalekin koordinazio eza eta pairatzen duten lan-karga dira ikusten dituzten traba nagusiak. Baliabide asko ez dituztela ezagutzen aipatzen dute. Galdetegietan hurrengo arazoak azaldu dituzte: protokolo ezak, formakuntza ezak, instituzio ez eraginkorrak eta burokrazia.

Hauek dira arlo honetatik aipatutako indarguneak: profesionalen sentsibilitatea eta inplikazioa, koordinaziorako borondatea eta sortzen ari diren baliabide berriak.

OSASUN ARLOA

Nerabeen beharrak

Osasun arloan lan egiten dutenek, buru gaixotasuna duten nerabeetan prebentzioa eta detekzio goiztiarra beharrezkoak direla aipatzen dute.

Baliabideei dagokienez, eguneko zentroak beharrezkoak direla uste dute, baita osasun arloa eta hezkuntza arloa batzen dituzten zentroak ere. Jokabide arazoak lantzeko zerbitzu espezifikoak, eta erdi-mailako baliabideen beharra antzematen dute.

Osasun arloko profesionalek, hezkuntza arlotik arreta psikologiko eta psikopedagogikoa handitzeko beharra dagoela uste dute.

Laguntza psikologikoa, nerabeei aholkularitza, eskolan laguntza eta parekoekin aisialdiko ekintzak egitea oinarrizko behartzat hartzen dituzte. Nerabeek sare sozialei buruzko heziketa gehiago behar dutela uste dute osasun arloko profesionalek.

Bukatzeko, diagnostikoak arinegi ez egitea beharrezkoa ikusten dute. Gainera, hezkuntza baliabide espezifiko bat, 16 eta 18 urte arteko nerabeek dituzten beharrak betetzen dituen, beharrezkoa dela nabarmentzen dute, baita drogen kontsumoan prebentzio gehiago ere.

Familien beharrak

Familiek buru gaixotasunari buruzko heziketa gehiago eta buru gaixotasunaren ondorioz agertzen diren egoerei aurre egiteko estrategiak behar dituztela uste dute osasun arloko profesionalek.

Familiek laguntza, aholkularitza, eta lasaialdi esparruak behar dituzte. Gainera, babesgabetasun egoeretan ez dauden familiek baliabide gehiago behar dituztela uste dute.

Bukatzeko, familiek hezkuntza arloan parte hartze handiagoa izateko aukeraren beharra dagoela antzeman dute.

Profesionalen beharrak

Osasun esparruko profesionalak buru gaixotasuna eta baliabideei buruz prestakuntza gehiago behar dute. Profesionalen arteko koordinazioa hobetzea oinarritzat hartzen dute. Koordinazio hau, denbora aurrezteko asmoarekin, online egitea proposatzen dute; kasu askotan, parte hartzen duten profesional guztien artean koordinazioa egiteak denbora asko eramaten duelako.

Arreta goiztiarreko protokoloak berrikusi behar dira, eta kasuen jarraipena disziplina anitzetatik egiteko beharra dagoela azpimarratzen dute.

Zailtasunak dituzten gazteak, buru gaixotasuna duten gazteetatik alderatzea beharrezkoa dela uste dute osasun esparruko profesionalak.

Bukatzeko, baliabide espezifikoen falta nabarmentzen da (etxebizitza baliabideak, eguneko ospitaleak) eta prebentzioaren beharra adierazten dute, buru gaixotasuna agertu ez dadin.

Trabak eta indarguneak

Osasun arlotik, ikusten duten traba handiena, giza arloan gertatzen den modu berean, lan-karga da. Beste profesionalekin koordinazio/komunikazio zailtasuna ere agertzen da zailtasun gisa. Halaber, itxarote-zerrenda handiak eta hitzorduen maiztasuna (espero den baino maiztasun gutxiagorekin) oztopo moduan hartzen dituzte profesional hauek.

Arlo honetan profesional gehiagoren beharra ikusten dute, zehazki psikologo gehiago behar direla adierazten dute. Gainera, erreferentziazko profesionalen falta eta ikuskapen profesionalaren falta salatzen dute. Era berean, jokabide nahasteak eta drogen kontsumoa erakusten duten gazteekin lan egiteko zailtasuna adierazten dute.

Indargune gisa, osasun arloko langileen jardunbide egokiak (profesionaltasunez, borondate onarekin eta gogoarekin) eta beraien formazioa identifikatzen dituzte profesional hauek.

Aipatzen diren beste indarguneak hurrengoak dira: koordinazioa, Hezitzaile Terapeutiko Unitatea (HTU) eta hezkuntza sistema, eta nerabeen bilakaera positiboarengan lan integratua duen eragina.

HEZKUNTZA ARLOA

Nerabeen beharrak

Hezkuntza arloko profesional bat baino gehiago uste du psikologoek lanordu gehiago behar dituztela ikastetxeetan, aldi berean ikastetxeetan baliabide gehiago behar direla. Gainera, buru gaixotasunari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea (ikasle, irakasle eta gurasoei zuzenduta) garrantzitsua dela uste dute.

Hezkuntza arlotik, buru gaixotasuna duten nerabeentzat erdi-mailako baliabideen sorkuntza garrantzi handiz hartzen dute: eguneko ospitaleak eta bizitoki baliabideak, pisu eta egoitzak adibidez.

Halaber, buru gaixotasunaren detekzio goiztiarra oso garrantzitsua da hezkuntza arloko profesionalentzat, interbentzioa eta baliabide egokirako deribazioa une egokian egin ahal izateko.

Familien beharrak

Familiek hurrengo behar dutela aipatzen dute: informazioa eta aholkularitza, gaixotasunari buruz ikasteko esparruak, laguntza esparruak, baita arnasa hartzeko baliabideak ere.

Profesionalek duten beharrak

Hezkuntza arloko profesionalek baliabide espezifikoak deribazioa egiteko irizpide zehatzak behar dituzte, baita beste arloko profesionalekin koordinazioa ere.

Aholkularitza eta laguntza beharra ere eskatzen dute. Diagnostiko goiztiarrak egitea oso garrantzitsua dela uste dute, diagnostikoak oso berandu heltzen direla pentsatzen dutelako.

Azkenik, esku-hartzea nerabearen inguru naturalean egitea, hau da, familian eta ikastetxean egitea, oso garrantzitsua dela aipatzen dute.

Trabak eta indarguneak

Hezkuntza arloko profesionalek, klaseetan dagoen ikasle ratioa traba gisa ikusten dute -altuegia- baita beste arloko profesionalekin dagoen koordinazio eskasa (bai denboran, bai maiztasunean) ere.

Traba gisa ikusten dute nerabeekin lan egiten duten profesionalen perfil aniztasuna, eta arlo bakoitzean hizkera ezberdinak erabiltzen direla.

Beste arlotan gertatzen den era berean, hezkuntza arloan lan egiten duten profesionalak honen indargune dira.

GIZA-OSASUN ARLOA

Nerabeen beharrak

Arlo honetatik, galdetegia betetzen duten profesionalak esaten dute kolektiboak informazio gehiago behar duela. Nerabeei emozioak eta frustrazioa kudeatzeko tolerantziari buruzko formakuntza behar dutela aipatzen dute. Osasun arloan presentzia gehiago izatea (baliabide espezifikoaren bitartez) beharrezkotzat hartzen dute.

Familien beharrak

Arlo honetako profesionalak, familia aldetik, informazio gehiago eta beraien ingurunean formakuntza beharrezkoak direla esaten dute. Familiak emozioak kudeatzeko formakuntza eta aholkularitza behar dutela aldarrikatzen dute.

Profesionalek dituzten beharrak

Giza-osasun baliabide gehiagoren beharra antzematen da, buru gaixotasuna duten nerabeei arreta emateko.

Trabak eta indarguneak

Traba gisa, beste arloetan agertzen den bezala, profesionalen arteko koordinazioa ona izatea, zaila dela aipatzen dute.

Indargune gisa, arreta, pertsonaren arlo guztietan ematen dela aipatzen dute, eta hau nerabeen bizi kalitatea hobetzeko ezinbestekoa dela azpimarratzen dute.

GIZA-HEZKUNTZA ARLOA

Nerabeen beharrak

Galdeketari erantzun zuten giza-hezkuntza arloko profesionalak, adingabekoek buru gaixotasunari buruzko formazioa eta informazioa, bere maneirako jarraibideak eta sare sozialei buruzko jarraibideak behar dituztela uste dute.

Adingabekoen beharrei erantzuna ematen dieten baliabide espezifikoak behar dira profesional hauen iritziz. Halaber, nerabeentzako sostengu sozial eta psikologikoaren beharra ikusten dute, baita laguntza taldeak eta baliabide normalizatuetan integratzeko laguntza ere.

Familien beharrak

Orientazioa, informazioa eta sostengu soziala lehenetsun moduan ikusten dituzte giza-hezkuntza arloko profesionalak. Halaber, laguntza psikologikoa eta talde ekintzak edo familientzako laguntza taldeak ere beharrezkoak ikusten dituzte.

Galdeketari erantzundako pertsona batzuk hurrengo beharrak aipatzen dituzte: baliabide espezifikoak, profesionalen arteko koordinazio gehiago, hezkuntza proiektuak pisu gehiago izatea, osasun-hitzorduen maiztasuna zein arintasuna handitzea eta familientzako formazioa.

Profesionalen beharrak

Galdeketan arlo honetako profesionalak formazio gehiago behar dutela aipatzen dute (web, buru gaixotasuna, nerabeekin eta bere familiekin aritzeko jarraibideak, informazio eta komunikazio teknologikoari buruzko formazioa). Halaber, beste baliabideekin koordinazio gehiago behar dela eta kasu konkretuetan informazio gehiago behar dutela adierazten dute.

Azkenik, giza-osasun baliabide espezifiko gehiago behar direla esaten dute.

Trabak eta indarguneak

Kasuen koordinazioan ikusten dute traba gisa arlo honetako profesionalak. Protokoloak, eta tramite burokratikoak oztopoak direla uste dute, atentzioa berandutzen dutelako.

Giza-hezkuntza arloko profesionalek aipatzen duten indargunea esparru honetako profesionalen kalitatea da, zehazki beraien ardura eta gogoagatik. Era berean, erakunde anitzei heltzeko erraztasuna eta bere seme-alaben prozesuan familien inplikazioa ikusten dute indargune gisa.

BESTE ARLOETAKO EMAITZAK

Nerabeen beharrak

Lehenago aipatu ez diren arloetatik, topaketara etorritako profesionalen galdeketak jaso ziren.

Pertsona hauek buru gaixotasun bat duten adingabeok dituzten ahalbideak azpimarratzea beharrezkoa dela uste dute.

Estigmarekin bukatzea, heziketa inguru egokitua eta ingurune normalizatutako berdinkideak izatea aipatzen dute behar gisa.

Familien beharrak

Lehen aipatu ez ditugun arloetan lan egiten duten profesionalak familiek informazio falta dutela uste dute. Gainera, errua kentzeko eta familiek baliabide propioak edukitzeko beharra dutela uste dute, erakundeen laguntza gero eta gutxiago behar izateko.

Profesional hauek uste dute, familientzat baliagarria izango liratekeela sare sozialei buruzko formazioa izatea, bere beharrak asetzeko baliabideak ezagutzea eta adingabekoei aisialdirako ekintzetan laguntza ematea beharrezkoa dela.

Profesionalen beharrak

Profesional hauek, etengabeko prestakuntzaren beharra aipatzen dute.

Trabak eta indarguneak

Profesional hauek traba gisa ikusten dute profesionalen banatzen gaituzten gauzak bultzatzen direla, batzen gaituzten gauzak bultzatzea baino. Beste profesionalekin koordinatzea zaila dela aipatzen dute.

Indargune gisa, urte askotako esperientzia eta profesionalen bere lanarekin adierazten duten motibazioa eta ilusioa azpimarratzen dituzte.

ARLO GUZTIETATIK JASOTAKO EKARPENAK

Topaketara heldu zirenek betetako galdetegiak, iradokizunak aipatzeko atal bat zeukan. Jarraian, ekarpen garrantzitsuenak azaltzen dira:

Giza arlotik, familiarekin lan egitea funtsezkoa dela azpimarratu nahi dute. Haien ustez, disgaitasunari buruz eta gaixotasunari buruz formazio gehiago beharrezkoa da. Nagusiak (guraso, profesional eta hezitzaileak) aldaketei egokitu behar direla aipatzen dute. Azkenik, ezaguerak praktikan jarri behar direla eta entzutea eta aditzea funtsezkoa dela adierazten dute giza arloko profesionalak.

Hezkuntza arlotik bi ekarpen nagusi egiten dira: alde batetik, programa bateratuak egitearen beharra azpimarratzen da, alegia arlo guztietatik etorritako profesionalak batzen dituztenak. Beste aldetik, konpromisuak hartzeko nahia eta ekintza planak egiteko desioa adierazten dute.

Osasun arlotik, hezkuntza arloan eta giza-osasun arloan gizarte langile gehiago egon behar direla uste dute. Haien ustez, psikologo eta psikiatrak egindako lana balioztatu behar da, eta premiazkoa ikusten dute osasun, hezkuntza eta giza arloaren arteko koordinazioa.

Giza-hezkuntza arlotik, profesional eta erakundeen artean koordinazio gehiago behar dela uste dute. Gainera profesional ez espezializatuentzat formazioa behar dela aipatzen dute.

Azkenik, **beste arloetako** profesionalak egoera konplexuei aurre egitearen garrantzia azpimarratzen dute, bai banaka zein taldean lan egiten. Lan hausnartua egitearen garrantzia ere aipatzen dute.

DAUDEN BALIABIDEAK

Topaketara heldu ziren profesionalak betetako galdeketan, galdetzen zaie ea zer baliabide ezagutzen dituzte bai nerabeen bai familien beharrak betetzeko.

Jarraian, lortutako emaitzak azaltzen dira:

Adingabekoei zuzendutako baliabideak:

-Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senideen Arabako Elkarte (ASAFES) (ikastetxeetan buru gaixotasunari buruzko sentsibilizazioa).

-ELKARTEAK (JAIKI Fundazioa, Arabako Autismo eta garapenaren beste nahasmen jeneralizatu batzuen Elkarte (ARAZOAK), Adimen-Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte (APDEMA), Arabako Guraso Bananduen Elkarte (AMAPASE), Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkarte (ACABE), DOWN ARABA-Isabel Orbe Elkarte)

-Osasun Mentaleko Sarearen baliabideak (Haur eta Gazteentzako Osasun Mentaleko Unitatea, Hezitzaile Terapeutiko Unitatea, Arreta Intentsiboko Programa, Mendekotasunen Orientazio eta Tratamenduen Eguneko Zentroa, Angulemako eguneko ospitalea, Santiago Ospitalearen 7. Solairua).

-Berritzegunea.

-Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen adingabeko eta familien arloa.

-Udaletxearen haurtzaro eta senitarte zerbitzua.

-Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.

-Psiko Aholkularitza.

-Sexu Aholkularitza.

-Ludotekak.

-Bulego pribatuak.

-Babes etxeak.

-Berritze zentroak.

- Aniztasunari sostengua ikastetxean.
- Babesten.
- Grupo Urgatzi.
- Familia bitartekaritza zerbitzua.

Familiei zuzendutako baliabideak:

- ASAFES (laguntza taldeak eta formazio taldeak).
- ELKARTEAK (JEIKI, ARAZOAK, APDEMA, AMAPASE, ACABE, DOWN ARABA-Isabel Orbe).
- Arabako Osasun Mentaleko Sarearen baliabideak (Haur eta Gazteentzako Osasun Mentaleko Unitatea, Hezitzaile Terapeutiko Unitatea, Arreta Intentsiboko Programa).
- Ikastetxea.
- Sexu aholkularitza.
- Familia bitartekaritza zerbitzua.
- Babesten.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen adingabeko eta familien arloa.
- Udaletxearen haurtzaro eta senitarte zerbitzua.
- Berritzegune.
- Oinarrizko gizarte zerbitzua.

ONDORIOAK

Mahai inguruan sortutako eztabaida kontuan hartuta, baita topaketan parte hartu zuten profesionalak betetako dokumentuak ere, hurrengo ondorioak ateratzen ditugu:

Buru gaixotasun bat duten adin txikikoen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten dugun profesionalak, zailtasun batzuk amankomunean ditugu. Arlo guztietatik intentsitate gehiagoko interbentzioak beharrezkoak direla ikusten da. Halaber, betetak ez dauden beharrei aurre egiteko baliabide berrien sorkuntza, eta profesional guztien arteko koordinazioa hobetzea premiazkoa da. Estigmarekin bukatzea eta buru gaixotasunari buruzko gizartearen ikuspegia hobetzea da guztiontzat beharrezkoa. Era berean, arlo guztietako profesionalak indargune komunak ditugu: koordinatzeko borondatea, eta kalitatezko profesionalak garela.

Espero dugu, koordinatzeko eta hobetzeko borondate hau, baita kolektiboarekin eta bere familiekin lan egiten dugun profesionalen kalitatea ere, **sinergiak eta sare-lana bultzatzea, laguntza ezin hobea ematen jarraitzeko.**